IDEIA

Guk garatuko dugun produktua umeentzako **desagertzeko zorian dauden** animalien pelutxeak izango dira.

Hauek, **bozgoragailu bat** izango dute barnean, **animaliaren istorioak** grabatuta edukiko dutenak, hau da, bakoitzak istorio bat kontatuko du, **beraien ikuspuntutik** izango balitz bezala.

Bestalde, istorioa bukatzean, beste botoi bat sakatuz, **haien datuak kontatuko** lituzkete, fisikoak, geografikoak, etab.

Hauek berezitasun bat izango dute, **inpaktu sozial** zein **ingurune inpaktua** izango dute, hots, pelutxe hauek, naturarentzako kaltegarriak diren material erabili beharrean, **material birziklatuekin** produzituko ditugu. Lehen aipatutako materialen artean ehungintzako materiala izango da nabarmenena gure pelutxeari forma eta betegarria emateko eta bestetik, material elektronikoentzat beharrezkoak diren osagaiak.